

Kongoko

UMEAK ETA GAZTEAK

Kongoko
erritmor



Biztanle-kopurua: 77,8 milioi / **0-18 urteko biztanleak:** %44,4 /
Bizi-itxaropena: 59 urte

1.000 neska-mutil jaioberritak, 94 ume 5 urte bete baino lehen hiltzen dira

Bost urtetik beherakoen heriotza-tasa ia-ia %50 jaitsi da munduan 1990. urteaz geroztik. Kongoko Errepublika Demokratikoan, ordea, tasa hori mila jaioberriko 94 heriotzakoa da oraindik.

Nahikoa arriskutsuak diren gaixotasunen ondorioz (elgorria eta paludismoa, esaterako) hildako umeen kopurua ia-ia %70 gutxitu zen 2000. urtetik 2015. urtera. Elgorriaren aurkako immunizazio-estaldura %63tik %72ra igo zen epealdi berean. Poliomielitisa, umeen zein helduen desgaitasun-arrazoi handienetakoa izan zen arren, erabat desagertu da Kongoko Errepublika Demokratikoan. Bizitzako lehenengo sei hilabeteetan amek emandako edoskitze eskusiboa %36-%48 igo da.

6-11 urteko neska-mutilen %80 Lehen Hezkuntzako eskolara joaten dira

Oinarrizko hezkuntzan, Lehen Hezkuntzako eskolan matrikulatutako umeen kopurua nabarmen bikoiztu zen 2001-2002ko eta 2012-2013ko ikasturteetan, 5,47 milioitik 12,6 milioira igo zelako. Lehen Hezkuntzako eskolan hasten direnean, ia-ia ez dago alderik nesken eta mutilen kopuruaren artean, genero-etena geroago handitzen bada ere, 10 neskatatik 6k baino ez dutelako amaitzen Lehen Hezkuntza, 10 mutiletatik 8k amaitzen duten bitartean.

Aurrerapausoak handiak izan badira ere, oraindik badago erronkarik. Ia-ia neskak %40 18 urte bete baino lehen ezkontzen dira, ezkontzeko legezko adina hori izan arren.

Neskatila horiek eskola uzten dute beri, arrisku handiko haurdunaldiak

TRABAJO INFANTIL

Guztira, 40.000 neska-mutilek mineralak erauzten dituzte eguneko 1-2 dolarren truke

Estatuak hezkuntzaren kostuaren %22 bakarrik bere gain hartzen duenez, gurasoek seme-alabak eramaten dituzte eurekin lan egitera. Hori dela eta, zeresan handia dute familiaren ekonomian. Oro har, ume langile gehienak KEDeko ekialdeko eskualdeetan daude erregistratuta, bertako meategietan, hain zuzen ere. Zenbatespenen arabera, 40.000 neska-mutilek lan egiten dute meatzaritzan (2014, UNICEF), eta gehienek kobaltoa erauzten dute.

Adingabeek meategi horietan dituzten lan-baldintzak ikaragarriak dira. Helduen antzera, etengabe lan egiten dute eta babeserako edo segurtasunerako inolako neuririk gabe. Bero jasanezina, hauts gorriko hodeiak eta argi gutxi dituzten lekuetan, ume horiek 200-300 metroko sakonera duten tunelak indusi behar dituztenez, eraispenengatik itota edo beste istripu hilgarri batzuen ondorioz hiltzeko arriskuan daude etengabe. Ordainetan, eguneko 1-2 dolar lortzen dute.



dituzte eta abusuak jasaten dituzte.

Sei milioi neska-mutilek desnutrizio kronikoa dute

Desnutrizio kronikoak Kongoko Errepublika Demokratikoko adin txikiko 2 milioi neska-mutiletan baino gehiagotan eragina duenez, haien garapena jartzen du kolokan. Oso egoera larria da, umeen elikadura txarrak helduaroan dituelako ondorioak. Gainera, arazo hori herrialdeko ekialdean larriagotu da Kasai eskualdeko gatazka armatuaren ondorioz, bertan 10 umetatik batek desnutrizio larria duela kontuan hartuta.

Neska-mutilen %25 baino ez daude inskribatuta Erregistro Zibilean

Nortasunerako eskubidea umeen eskubide aitortua da, baina Kongoko Errepublika Demokratikoko umeen %25 baino ez daude erregistratuta. Neska-mutilak jaiotzean inskribatzen badituzte, estatuak jaio egin direla baieztatzen du, eta lehenengo urrats hori ezinbestekoa da euren eskubideak aldarrikatzeko orduan.

1,7 milioi lagun baino gehiago lekualdatu egin dira

Kongoko Errepublika Demokratikoko krisi humanitarioak hainbat urte iraun duenez, ia-ia ahaztu egin dute zeinen gogorra den. 2016an, 1,7 milioi lagun baino gehiago lekualdatu ziren euren etxeetatik, eta haien %40, gutxi gorabehera, emakumeak zein neskatilak dira.

15-19 urteko nesken %21 erditu egin dira

Haurdunaldi goiztiar asko daude, Kongoko 15-19 urteko neskatilen %27 haurdun daudelako edo egon direlako. Gehienek, gainera, nahi gabeko haurdunaldiak dituzte. Oraindik hobera egin behar bada ere, amatasunarekin lotutako arreta eskuratzeko aukera nahikoa ona da, 10 neskatatik 9k langile prestatuen arreta jaso dutelako umea jaio aurretik. Neska gehienak ospitale edo osasun-zentroetan erditzen dira osasun-langileen arretapean. Dena dela, oso gutxi jasotzen dute umea jaio osteko arreta edo laguntza psikologiko edo soziala.



Indarkeria jasaten dute...

Neskatilen aurkako indarkeria (fisikoa edo psikologikoa) haien garapenerako benetako oztopoa da, baina herrialdean egin beharreko edozein hobekuntza ere eragozten du. Bi neskatatik batek abusu sexuala edo emozionala jasan dute, eta, gutxi gorabehera, 15-19 urteko bost neskatatik bat bortxatu egin dute (%4, 15 urte eduki baino lehen). Indarkeriari amaiera emateko eta zikloa hausteko asmoz gero eta neska gehiagok laguntza bilatzen dutenez, KEDen arlo horretako joera beheranzkoa bada ere, oraindik ere herrialdean nekez desagerraraziko dute arazo hori.

... eta ez dute erabakietan parte hartzen

15-19 urteko nesken %23 ezkondata daude. Neska gazte horien %55i nolabaiteko tratatu txarrak ematen dizkiete senarrek. Familia barruko indarkeria horretan, neska gehienek justifikatu egiten dute senarrak emaztea jotzea janaria txarto prestatzen duenean edo senarrarekin eztabaidatzen dutenean. Bestetik, lau emakumetatik batek bakarrik parte hartzen du bikoteak hartzen dituen erabakietan edo bere kabuz erabakitzen du zertan erabili diru-sarrerak.

12.500 neska soldadu

Adingabeak eta soldaduak dira herrialdeko ekialdeko gatazkan. Kongoko Errepublika Demokratikoan, *kadogoak* esaten diete. Kalashnikovak daramatzate, eta pattarra edaten dute mozkortzeko. Neska-mutil horietako asko haien herrixketan harrapatu zituzten, eta beste batzuek gerrako jaunen zerbitzuan eman

Kongoko
erritmora



zuten izena bizibidea lortzeko. Zenbatespenen arabera, munduan neska-mutil soldadu gehien dituen herrialdea da Kongoko Errepublika Demokratikoa. 30.000 baino gehiago talde armatuetan daude, eta espioi edo zamaketari moduan erabiltzen dituzte; eta neskek, esklabo sexual moduan, batez ere. Gerrako gizonen munduan, neska gerlarien errealitatea ikusezina da sarritan. Edonola ere, munduan talde armatuekin bat egin duten adingabeen ia-ia erdiak neskek dira. Kongoko Errepublika Demokratikoan, 12.500 neska soldadu daude, gutxi gorabehera.

20.000 ume kalean bizi dira Kinshasan

KEDen, kaleko neska-mutilak oso ugariak dira, eta ezin konta ahala arriskuri aurre egin behar diete. Hiriburuan, Kinshasan baino ez, 20.000 inguru adingabe bizi dira kalean, eta, haietatik, %26 neskek dira. Familiak txiroak direnez, neska-mutilek hirietako erdialdean bilatu behar dute janaria. Hori dela eta, haietako batzuk ingurune horretara egokitzen dira, eta ez dira familia-gunera itzultzen, bertan ere gose direlako. Beste kasu batzuetan, neska-mutilei sorginak direla leporatzen diete, eta erkidegotik botatzen dituzte. Oso ohikoa da hori egitea, herri-kulturan magia edo sorginkeria oso sustraituta daudela kontuan hartuta. Askotan, gainera, abusuak jasaten dituzten edo txirotasun gorrian dauden ama ezkongabeek bertan behera uzten dituzte euren seme-alabak.

Batez ere, oso-oso larria da neskek kalean bizi duten egoera. Mutilak eskean dabilta, kalean lapurtzen dute eta lan txikiak egiten dituzte. Nesken bizibide nagusia, ordea, aisialdi-guneetako klub ugarien inguruan garatzen den prostituzioa da. Batzuetan, neskek kaleko mutilen baten bikotekidea ere badira (beraz, neskek prostituziotik lortutako diru-sarrerei ere ateratzen diete onura), eta haietako batzuen seme-alabak kalean bertan jaio dira.



Mas información en: <http://www.itakaescolapios.org>